

Plazako pilotariei deialdia



Zabalik da Eskuzko Binakako Txapelketarako izen-ematea ▶ 7

Harpidedunei banatua ▶ Asteartea ▶ 2005-04-26 ▶ III. urtea ▶ 591. zenbakia

Ibarrako XII. Olinpiada Txikiak bukatu dira

JAI GIROAN ▶ Bat eginda, giro politean ospatu dituzte herriko elkarteetako kideek bi asteburutan

IRABAZLEAK ▶ Xepila A taldea izan da nagusi; haren atzetik sailkatu dira Sendi Ekintza B eta I.K.E. B. ▶ 6



Bazkariak eman zien amaiera igandean Olinpiada Txikiei. HITZA



HITZA

Eskaltzu mendiko larreen irekitzea

ZIZURKIL ▶ Abeltzainek egin dute Eskaltzu mendiko I. Larre Irekiera; lurra lehortu ahala ganadu guztia larreratzen joango direla diote ▶ 4

TOLOSA ▶

Bizikidetza eta bakea mintzagai Laskorainek

Gasteizen aurkeztu dute programa ▶ 2

JOAN JOSE URANGA ▶ IDAZLEA

«Erljioaren egitekoa gizakiaren duintasuna bermatzea da»

Hala, «munduko injustizi eta jokaera makur asko baztertuko genituzke» ▶ 3



BERRIA

ALEGIA ▶

Luis Maria Nuñez koadroak ikusgai dira

Jubilatuen tabernan dago erakusketa ▶ 5

HEZKUNTZA ▶



Jone Urteaga eta Koldo Jauregi, Laskorain ikastolako irakasleak eta arduradunak, Gasteizen, jardunaldietako akreditazioekin soinean. HITZA

Hizkuntz aniztasuna Tolosako kaleetan

Laskorain ikastolakoek trukea egin dute Erresuma Batuko eta Britainiako bi eskolekin; herrian izan dira kanpotarrak berriki

I. ETXEBESTE

Tolosako kaleetan azken egunetan gazteen artean izan den euskararen erabilera neurtuko balitz, ohi baino hizkuntza aniztasun handiagoan, gaztekeraz gain beste lehiakide batzuk ere izango litzuzke gure hizkuntzak». Halaxe adierazi dute Laskorain ikastolako ordezkariak. Izan ere, ikasleekin trukea egin duten ikasleek ingelesa, bretoiera, frantsesa eta gaztelania hitz egiten dituzte.

Eleanitz proiektuaren baitan kokatzen diren bi truke antolatuta ditu ikastolak: Erresuma Batuko Howard School of Effingham-ekoekin eta Breizh-ko (Breitainia) Brest herriko Dywan Releg ikastetxearekin. Tolosakoak urtarrilean izan ziren Erresuma Batuan, eta Bresten, berriz, martxoan. Bada, orain gutxi, joan den astean, hangoen bisita izan dute. «Gazteok ekarri duten eskola-lana gure lurraldearen ezaugarriak islatzea denez, irteera sail bat antolatu zaie gure herriari buruzko ezagutza ahalik eta zabalean izan dezaten», esan dute ikastolakoek. Donostia, Hon-



Laskorain ikastolako ikasleak, atzeritrik etorritako lagunekin. HITZA

darribia eta Zarautz bisitatu dituzte kostaldean, eta Oñati, Arantzazu, Loiola, Urretxu, Legazpi... barnealdean. «Bilbon ere izan dira, eta Gernikako Bakearen Museoa oso interesgarri iruditu zaie; ez dugu ahaztu behar Brest berak ere antzeko suntsiketa jasan zuela Bigarren Mundu Gerran».

Britainiarrak lan handia ari dira egiten beraien hizkuntza, bretoiera, berreskuratzeko, eta horregatik, interes handia dute euskararen errealitatea eta hedapen egoera ikusteko. «Eskola talde bakarrean, Dywan eskolatan, dute bretoieraz ikasteko aukera. «Ikasleek 40 kilo-

metroko ibilerak egin behar dituzte kasu askotan eskolara joateko, eta barnetegi gisakoak dira horregatik». Arduradunen esanetan, «oso baldintza ezkorretan» ari dira hizkuntza gartzeko lanean: «Familietan ez da hizkuntza transmititzen, baliabide gutxi dituzte, eta gehienek ez dute sinesten bretoierak frantsesaren komunikazio maila beraz izan dezakeenik».

Hala eta guztiz ere, ilusioz ari dira etekinak lortuko dituztelakoan. Dywan eskolek errekonoizimendu handia baitute pedagogi mailako esperientzia berriengatik eta eskuratzen dituzten lorpen onengatik. ◀

Bizikidetzaz eta bakeaz

Gasteizen izan den Bizikidetzarako eta Bakerako Hezkuntzari buruzko 1. Jardunaldietan izan dira berriki Laskorain ikastolako bi ordezkari, 'Denok denok, guztiok elkarrekin' programa aurkezten

IRATXE ETXEBESTE

Gasteizko Europa jauregian izan berri dira, apirilaren 11n eta 12an, Bizikidetzarako eta Bakerako Hezkuntzari buruzko jardunbide egokiak trukatzeko 1. Jardunaldiak. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Justizia eta Lan sailek antolatuta dituzte jardunaldi horiek elkarlanean,

JARDUNALDIK

Baloreen lanketarako sortu duten material bildumaren eta antolakuntzaren berri eman dute irakasleek

eta gai horietan aditu diren hainbat lagunek gain, Euskal Autonomia Erkidegoko hama-bi ikastetxek eta Nafarroako ikastola batek lekuan lekuko esperientzien berri eman dute; Laskorain ikastolak, tartean.

Tolosaldeak ere izan du ordezkari jarraitza jardunaldi horietan, luze azaldu baitute bertan Laskorain ikastolak abian duen bizikidetzarako proiektua: *Denok denok, guztiok elkarrekin*. Jone Urteaga eta Koldo Jauregi, ikastolako arduradun eta irakasleak izan dira ordezkari lanetan aritu direnak, eta Laskorain ikastolak duela zortzi urtetik hona indarrean duen proiektuaren xehetasunak izan dituzte hizpide.

«Proiektu honen bidez bi helburu nagusi bilatzen ditugu: ikasleengan baloreak gartzeko lanean ikastolako kide guztiak elkarrekin aritzea eta horretarako plangintza sistematizatu bat osatzea behetik gora arlo hau eguneroko irakaskuntza jardueretan jorratzeko a batetik; eta, bestetik, ikastola osoko, baina indar berezia Bigarren Hezkuntzan jarrita, elkarbizitza atsegina eta oparoa egungo duen antolakuntza eta partaidetza bultzatzea», esan dute Urteagak eta Jauregik. Lan horretarako, gainera, familiekin batera lan egiteko guneak sortu dituzte.

Ildo horretan, baloreen lanketarako sortu duten material

bildumaren, eta, horrekin «modu koordinatu eta koherente batean lana egin ahal izateko» eratu duten antolakuntzaren berri eman dute Laskorainekoek Bizikidetzarako eta Bakerako Hezkuntzari buruzko jardunaldietan. Material horien bidez hainbat eduki multzo lantzen dituzte bi urtetik hemezortzi urtera bitarteko haurrekin eta gazteekin; «autoestimua eta gizarte gaitasunak bezala, osasuna, sexu heziketa, afektibotasuna, ingurumena...». Horrekin batera, ikastolako irakasleek diote esperientzia praktikoa gisa «garrantzia handia» izan dutela Uhin-bare programak, Funtzionamendu Batzordeak, Euskara Elkarteak

eta Gabonetako Merkatu Txikiak, teoriarik landutakoak zuzenean ezagutu ahal izateko aukera eman dutelako.

Ikastolako ordezkariak «oso gustura» azaldu ziren haien esperientzia maila horretako jardunaldietan parte hartzeko aukeratu zutela jakitean, batez ere, bertan izan direlako, besteak beste, UNESCOko Paco Gaston, Luis Otano ikerlaria eta Xesus R. Jares, galiziarra, Espainiako Bakerako Ikerketa Elkarteko egungo lehendakaria, gatazkari, bizikidetzari, bakeari, egitari eta itxaropenari buruz hitz egiten. Gai horien inguruko adituen solasaldiekin uztartu dituzte 13 ikastetxeetako arduradunek haien hitzak.

JOAN JOSE URANGA ▶ IDAZLEA

«Kontzientziarik gabeko zientziak ematen dit beldurra»

'Etxe-ataritik: globalizazioa eta balioak' XX. eta XXI. mendeetako erronkak eta arriskuak aztertzen dituen liburua argitaratu berri du

UNAI ZUBELDIA / BERRIA

Joan Jose Uranga (Zestoa, 1938) baserriko semea da. Anaiari segika, 1950ean Zestoatik Tolosara joan zen, sakramentinoetara. Urte askoan Tolosan aritu zen irakasle lanetan eta parrokiari. 1993an Madrilerara joan zenetik, ordea, han ari da lanean. 2001ean *Herioarekin borrokan* autobiografia lana argitaratu zuen; orain, XX. eta XXI. mendeetako erronkak eta arriskuak aztertu ditu *Etxe-ataritik: globalizazioa eta balioak* liburuan.

12 urte badira Madrilerara joan zinelako. Kanpora joanda gehiago estimatzen al da etxekoa?

Ni Euskal Herrian euskaraz biziko nintzatekeen, baina hemen erdal giroan bizi gara, giro politiko-sozial oso gogorrean, ez daukagu irratiri bat entzuterik, min ematen baitu. Horrek bultzatzen du bat bere txokoa gehiago zaintzera, modu batera edo bestera sendatu edo baktezko.

Zerk bultzatuta hasi zinen horrelako azterketa lana egiten?

Erroman egin nituen Teologia ikasketak, eta egonaldi hark begiak ireki zizkidan. Beti gustatu izan zait idaztea, bere kasa irteten zitzaidan. Txikitzen ere zerbaite idatzi behar nuenean euskaraz idazten nuen. Madri-la etorrira, barruko sentimen-



BERRIA

duak askatu beharrean aurkitu nintzen.

1970ean, pentsamenduan aldaketa bat izan zela diozu. Liburu hau, nolabait, aldaketa horren isla da.

Bai. Aldaketa izan zen, eta horri lotuta hasi nintzen pentsatzen mende berri honetako erronkak zein izan zitezkeen. Horrek zurrara sortzen zidan: giza baloreen kezka, horietan oinarritu eta kezkatu beharra... Lan hau egiteko, batez ere, erronka eta kezka horiek eduki ditut goaon.

Etxe-ataritik jarri diozu izena liburuari. Zerk ikusten da XXI. mendeko etxe-ataritik?

Ni baserrian jaio, bizi eta hazitakoa naiz, eta etxe-atarik horretatik begira idatzi dut liburuari. Gaur egun baserriko seme-alaba guztiak mundu moderno eta zientifikoa erabat sartuta daude. Liburuan garai hartako gizona gaurko heziketa eta informazio guztia beregain duela mende berriko erronkak aztertzen jarri dut.

XXI. mendeari gauza onak bai, baina arrisku handiak

ere ikusten dizkiozu. Gizakia, balioak, ama-lurra bera arriskuan ikusten dituzu.

Gure planeta Lurra da, eta Lurra kezka handia sortzen dit. Gauzak serio hartu ezean itzulerarik ez duen gaixotasun batean sartu behar du mundu honek. Pentsamendu horrek hasi nintzen buruari bueltaka. **Xalbadorren bertso bat ere erabili duzu gizartea irudikatzeke. «Gaurko gizarteak jantzia dotorea, baina barrua hutsik du». Hain biluzik ikusten al duzu gizartea?**

Biluzik ez dut ikusten, hainbeste gauza on daude, eta zientziak berak hainbeste alde on ditu! Baina ekonomiarren oinarri edo orientazio aldetik arrisku izugarriak daude. Gizabakoak handitasuna azaldu nahi izateak beldur ematen du. **«XXI. mendeari gainera datorzion lainoa beltza da, beldurgarria da» diozu. Beldurra nabari zaizu.**

Bai. Bere alde on guztiak ahaztu gabe, kontzientziarik gabeko zientziak ematen dit beldurra, gizakia bera zuzenean erasotzeko gai ikusten baitut. Zientziak aurrera egiteko dirua behar du, eta dirudunek zientzia aurreratzen badute, arrisku handiak sor daitezke, beren menpeko gizakia sor baitezakete.

Etorrinen arazoa XXI. mendeko erronka handienetako bat bezala aurkezten duzu.

Europa hau, lehenago edo geroago, Erromako inperioa bezalakoa izango da. Garai hartan barbaro izenekoak sartu ziren Erroman. Hemen gauzak ongi egin ezean, gerta daitezke horrelako zerbaite, izugarria baita egunero itsasontzietan hainbeste hildako ikustea.

«Zibilizazio hau erlijiosoa izango da edo ez da deus izango». Zein da XXI. mendeko erlijioen egitekoa?

Erljioen egitekoak izan behar luke izadiari bere barnean sartzeko bideak irekitzea, barruko aberastasuna eta gizonaren duintasunaren iturburu izatea. Gure munduan erlijioaren dimentsio hori erabat ezabatzen bada, orduan bai gertuko garelako Xalbadorren bertsoan bere emazte alarguna bezala: kanpotik dotore-dotore eta barrutik hutsik. Erljioaren egitekoa, desberdinak izanagatik, elkar hartu, eta gizakia helburu jartzea da; gizakiaren osotasuna, gizakiaren duintasuna bermatzea. Erljio guztiek hori egingo balute, uste dut munduko injustizi eta jokaera makur asko moldatu edo baztertuko genituzkeela.

Demografia hazkundearen %98 herrialde pobreetan gertatuko da. Beste arrisku bat gehiago.

Dudarik gabe. Munduko ondasun guztiak gutxi batzuen eskuetan daude eta horrek kezka handia sortzen dit. Bestalde, hirugarren mundukoak lehenengo mundura jasotzea erabakiko balitz, mundua berehala hustuko genuke, munduaren ondasunak ez baitira guztiak maila horretan bizitzeko adinak. Hor arazo handi bat dago: europarrok eskailera batzuk beharago jaisten gara beste guztiak igo daitezkeen, edo bestela, ziurrenik, ez dugu bide zuzen-zuzena hartuko.

hitza lagunena
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beharapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

ZIZURKIL ▶ NEKAZARITZA

Eskaltzu mendiko I. Larre Irekiera egin dute abeltzainek

Batez ere, baserriarrak bildu ziren larunbatean lehenengo abelburuak Eskaltzugainen nola larreratzen ziren ikustera



Ikusle ugari bildu ziren larunbatean lehenengo larre irekieraren lekuko izateko. HITZA

ABELTZAINAK ▶

Eskaltzugain elkarteak zortzi abeltzainek osatzen dute. Honakoak dira horietako bakoitzaren baserrien izenak, banan-banan zehaztuta:

▶ Zaldu Goiiena

- ▶ Berastegi
- ▶ Ugarte
- ▶ Izibar
- ▶ Iruña
- ▶ Andrezketa
- ▶ Egialde
- ▶ Zugatzizabal

IMANOL GARCIA

Iragan larunbatean egin zuten Eskaltzu mendiko I. Larre Irekiera. Laurogei bat lagun elkartu ziren Ziortzako langa aldean ekitaldi honen lekuko izateko. Azken egunetan izandako eguraldi txarra dela-eta ez dute ganadu guztia larreratu. Sei behi —larreetarako gorriak eta esnetarako pinttoak— eta ze-

zena izan ziren larreak zapaldu zituzten lehenak. Izan ere, eraman nahi dituzten 50 buruak sartuz gero larrea hondatzeko arriskua zegoen, eurriak bigundu egin duelako. Lurra lehortu ahala joango dira abeltzainak ganadu guztia larreratzen.

Abereak Eskaltzu gainera igotzeko Pottok zalditegiko konpainia izan zuten baserriarrek. Eguraldi onak lagunduta, Eskaltzugainera igo zirenek hamaiketako jan zuten trikiti doinuak entzunez. Baserriarrek ziren nagusi bildutakoan artean, bai lehen larre horiek erabiltzen zituztenak nola berreskuratu zituzten ikusteko, bai egun honetatik aurrera erabiliko dituztenak.

Zortzi baserriakoak dira Eskaltzugain Abeltzain Elkarteak osatzen dutenak. Haien behiak eramango dituzte Eskaltzuko larreetara eta han izango dituzte udan. Urtero San Marcos egunetik gertuen gelditzen den larunbatean egingo dute larre irekiera. Udazkenera arte izango dituzte han; eguraldiaren arabera, lehenago edo beranduago eramango dituzte bueltan baserrietara.

Zezen bat izango dute ondolan 50 behiek eta zeru azpian emango dituzte buru guztiak egunak eta gauak. Aurrerago manga bat egiteko asmoa dute, hau da, itxitura txiki bat, abereak banan-banan pasatzeko eta beharrezko osasun neurriak bermatzeko.

Eskaltzuko larreak orain urte asko erabiltzen zituzten baserriarrek abereentzat. Makinaria sartu zenean, beheko larreetara mugatu ziren baserri lanak. Orain, usadio hori berreskuratu nahi dute eta lan handia egin dute otadiz josita zeuden larreak txukuntzen. 60 hektarea dira guztira; 26 egokitu dituzte jada: sasiz garbitu, lurra maneiatu, belar hazia erein, itxiturak egin... abereak berriz ere larreetan libre ibiltzeko.

AIZTONGO ▶

Bordeleko Nazioarteko Azokara irteera

Hilaren 29an amaitzen da izena emateko epea Aiztondoko bulegoetan

ERREDAKZIOA

Aiztongo Zerbitzuen Mankomunitateak Bordeleko Nazioarteko Azokara irteera antolatzen du. Maiatzaren 2an egingo da bidaia eta 15 euro balio ditu. Egun horretan bidaia-riak Larrauletik goizeko 06:30ean jasoko dira, Alkizatik 06:45ean, Zizurkil Goitik 6:50ean eta Adunatik 07:00etan.

Azoka honetan denetarik aurkitu daitekeela azaltzen dute Aiztondotik. Munduko 40 herritako erakusleak izango dira nazioarteko pabilioian eta denetarik aurkitu ahalko da bertan. Ibilgailuen pabilioian, lur orotako ibilgailuak, 4X4-ekoak, jeep, karabanak eta abar izango dira ikusgai. Nekazaritza aretoan aukera askotako ganadu eta Akitaniako beste produktu asko egongo dira. Horiez gain, areto gehiago bisitatzeko aukera izango da baita ere.

Antolatzaileek azaltzen dutenez, izena ematerakoan NAN zenbakia eman beharra dago, sarrerak norbanakoak direlako. Ordainketa eta fitxa betetzea Aiztondoko bulegoetan egin behar da. Izena emateko epea hilaren 29an amaitzen da, datorren ostira-lean. Informazio gehiago Aiztondoko bulegoetan edo 943 69 39 30 telefonoan.

Tolosako Udala
IRAGARKIA

Gobernu Batzarrek, 2005eko apirilaren 11an egindako bilieran honako dokumentu hau tramitean jartzea erabaki zuten:

E14 "Leidor" eremuko Arau Subsidiarioen aldatzea aurrerakina.

Planeamendu Araudiko 125. artikulua xedatutakoaren arabera, aurrerakina HOGETA HAMAR EGUN jendaurrean jarrita egongo da.

Espedientea jendaurrean jartzeko arrazoiak hau da: korporazio, elkarte eta partikularrek edozein iradokizun edo planeamenduko beste aukera batzuk aurkeztu ahal izatea.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berrina, Hitza eta Diario Vascon argitaratuko da. Aurrean aipatu den epea argitalpen horietako azken iragarpena kaleratu eta bihar amunetik hasiko da kontatzen.

Espedientea, inork aztertu nahi badu, Udaletxeko Hirigintza Bulegoan (Plaza Zaharra, 6-B) egongo da, aipamenduko epean, Alegazio edo erreklamazioak Alkateari zuzendu behar zaizkio eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosan, 2005eko apirilaren 15ean.
ALKATEA.

Tolosako Udala
ENKANTEA

Gobernu Batzardeak, 2005eko martxoaren 21ean, erabaki hau hartu zuen: N-1 Errepidean, Bidebieta auzoren parean, zaratan aurkako pantailak ipintzeko obrak kontratatatzeko baldintza aginia onartzea.

1. Helburua: N-1 Errepidean, Bidebieta Auzo parean, zaratan aurkako pantailak ipintzeko
2. Litzitazioaren zenbatekoa: 170.020,21 (BEZA bame)
3. Lanek egiteko epea: 2 hilabete
4. Espedientea ikusteko: Kopibat (Lizardi plaza 2), telefonoa 943 65 51 66.
5. Behin-behineko fidantza: 3.400,00
6. Behin betiko fidantza: 6.800,00
7. Enpresen sailkapena:

TALDEA	AZPI TALDEA	MAILA
A	1	A
C	2	C

8. Eskaintzak egiteko epea eta tokia: Tolosako Udaletxeko Sarrera Erregistroan (Plaza Zaharra, 6 B) 2005-05-24 egun 13:00ak arte.

Tolosan, 2005eko apirilaren 22an
ALKATEA

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88


INMOBILIARIA ETA ASEGURAK
ETXESAGASTI

Andoain. 104 m2 erabilgarriak. 4 logela. 2 balkoi. Berritzeko. Ikuspegiak. Trastelekuak.


Etxesagasti. 943 696 856.
Asteasu. Txalet eraiki berria. Ezin hobea. Lurra, garajea eta trastelekuak. Deitu telefono zenbaki honetara: **Etxesagasti.** 943 69 68 56.
Irura. Eraikuntza berriko etxea. Egongela, sukualdea, 3 logela eta 2 bainugela. Eguzkitsua. Garaje eta trastelekuak. 49.000.000 pezeta. **Etxesagasti.** 943 696 856.
Tolosa. 85 m2-ko etxea. 3 logela. Berritzeko. Igogailua. Egoera onean. **Etxesagasti.** 943 696 856.
Zizurkil. Erabat eraberritutako etxebizitza bi logelarekin. Dena kanpoaldera. 3 balkoiekin. 33.800.000 pezeta. **Etxesagasti.** 943 696 856.

Zizurkil. 3 logelako etxebizitza. Erdizka eraberritua. Igogailua. Trastelekuak. 36.000.000 pezeta. **Etxesagasti.** 943 696 856.
Zizurkil. 3 logelako eta bi bainugelako etxebizitza. Egoera ezin hobea. Bi trasteleku. Igogailua. **Etxesagasti.** 943 696 856.
Villabona. 72 m2. Egongela, sukualdea, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. Trasteleku handia. **Etxesagasti.** 943 696 856.
Eskaera handia dela eta, etxebizitzak, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan. **Ibaron-zerrenda dugu.**

ALEGIA ▶ KULTURA



Elizak. Luis Maria Nuñezek eliza batzuk hartu ditu oinarri bere koadroak margotzerakoan. Erakusketa honetan Beasaingo Jasokundeko Andra Mari eliza aukeratu du eta haren edertasuna marraztu ahal izan du. Eraikuntza baten edertasuna ikusteko modurik onena ikustea den arren, ederki adierazi du. N. L.



Euskal baserria. Euskal Herriko usadioak ere sarri erabiltzen ditu, paisaia, natura, kirolak eta eraikuntzak, esaterako. Baserriak, noski, ezin dira zerrenda honetan faltatu eta bi jarri ditu ikusgai. N. LATABURU



Euskal eraikuntzak. Elizekin batera, Beasaingo Igartza jauregia, San Martin plaza eta Tolosako Olarraingo Otzaraingo errota marraztu ditu Luis Maria Nuñezek, Euskal Herriko txokoetan aurki daitezkeen eraikuntza eta bestelako egitura arkitektonikoekiko duen grina agerian utziz. Hauek zehatz-mehatz aurkezteko gaitasuna izan baduela azaldu du margolariak. NOELIA LATABURU



Erakusketa. Hamar dira Luis Maria Nuñezek Alegiako jubilatuen tabernako erakusketan aurkeztu dituen koadroak, egindakoak hamalau badira ere. Tabernako hormetan eskegi dituzte denak eta gustukoak erosteko aukera ere izango dute bisitariak. NOELIA LATABURU

Euskal Herriko paisaiek ekarritakoak

Apirila bukaera arte izango dira ikusgai Luis Maria Nuñez margolariaren koadroak Alegiako jubilatuen tabernan

NOELIA LATABURU

Euskal Herriko txoko ezberdinetako baserriak, plazak, elizak, bodegoiak, paisaiak, kirola eta natura. Gai hauek guztiak jorratzen ditu Luis Maria Nuñez Urruzola margolariak. Erakusketa berri honetan hamar margolan jarri ditu ikusgai Alegiako jubilatuen tabernan; hilabete honetan zehar izango dira ikusgai.

Aurkeztutako koadro horiek ikatz-ziriz eginak dira. Halaber, teknika pertsonal eta berriztatzaile bat sartu du erakusketan: bi boligrafoz eginikoa.

Nuñez 1986. urtean hasi zen bere lehenengo erakusketak egiten. Orduetik, bere lanek zabalpen handia izan dute Euskal Herri osoan zein Errioxan. Margolari autodidakta honek egunerokotasunera gerturatzeko gaitu sultitasun handiz,

baina, era berean, indar handiz, espresio eta naturalasun liluragarria lortuz.

Bere koadroak salgai daude 225 eta 1.200 euro artean. Hamar koadroetan bi euskal baserri, Beasaingo eliza, Igartza jauregia, baserri txikia, udazkena, Olarraingo Otzaraingo errota, Beasaingo San Martin plaza, Periko Alonso eta Txato Nuñez eta Tolosako eta Anotako plazak agertzen dira.



Baserri txikia. Betidanik izan du Luis Maria Nuñezek euskal giroan oinarritzeko joera bere koadroak marrazterakoan. Oraingo erakusketan ere gauza berbera egin du; koadro honetan baserri txiki bat aurkezten du, euskal usadioen berri ematen duena. N. LATABURU

IBARRA ▶ XII. OLINPIADA TXIKIAK

Xepla A taldeak irabazi ditu XII. Olinpiada Txikiak

Elkartek bat eginik, giro polita eta lagunartekoa izan da bi asteburuetan zehar

INIGO TERRADILLOS

Pasa den asteburuan hasi ziren, Hauspoa Kultur Elkarteak antolatuta, Ibarako XII. Olinpiada Txikiak, eta bi asteburuetan zehar, musean, eskoban, tokan, boloetan, ardo das-taketan eta beste hainbat probetan jardun dute parte hartu duten herriko 13 taldek.

Egindako proba guztietan batutako puntuen arabera Xepla A, Sendi Ekintza B eta I.K.E. B izan dira irabazleak. Eta kasualitateak kasualitate, puntuazio berdina batu dute hiru taldeek. Baina lehenengo hirurak nabarmendu behar direnez, proba bakoitzean ondoen nor aritu den begiratu dute, eta, horren arabera, lehenengo postuan Xepla A, bigarrenean Sendi Ekintza B eta hirugarrean I.K.E. B geratu dira.

Igandea izan zen jolasean aritzeko azken eguna. Goizean ibilaldi neurtua izan zen plaza-tik abiatuta; Izaskunetik igarotzen, Uzturrera igotzen eta, azkenik, Idoiagara iristen lehenak Gazte asanbladakoak izan ziren. Idoiagan, Olarrain elkar-tean hamaiketako egin zuten.

Sukaldaritza lehiaketan partatutako errioxar erara prestatu zituzten 13 taldeek eta goxoena, epaileen ustetan, Merkatarien Elkartearen platera izan zen.

Ibarako plazan egin zuten bazkarian bildu ziren talde

EMAITZAK ▶

Guztira, hamairu taldek hartu dute parte bi asteburuetan zehar izan diren Ibarako XII. Olinpiada Txikietan.

IRABAZLEAK

1. Xepla A
2. Sendi Ekintza B
3. I.K.E. B

PARTE-HARTZAILEAK

- ▶ Balantxaka
- ▶ Xepla A
- ▶ Xepla B
- ▶ Sendi Ekintza A
- ▶ Sendi Ekintza B
- ▶ I.K.E. A
- ▶ I.K.E. B
- ▶ Uzturpe ikastola A
- ▶ Uzturpe ikastola B
- ▶ Uzturpe ikastola D
- ▶ Gazte Asanblada
- ▶ Merkatarien Elkartea
- ▶ Bizi-Nahi jubilatua elkartea

guztiak eta baita animatu ziren herritarrek ere; guztira, 130 bat lagun. Sari banaketa orduan egin zuten. Diploma jaso zuten denek eta lehenengo hirurak txapela.

Elkartek bat eginda eta adin guztietako jendea elkarrekin izan dela, lagunarteko giro herrikoia nagusitu da bi asteburuetan zehar Ibarren.



Ibarako XII. Olinpiada Txikiak hiru talde irabazleen ordezkariak. HITZA



Epaileak, errioxar erara prestatutako patatei puntuazioa ematen. I.T.

IBARRA ▶

Kapitalismoaren aurkako borroken inguruko hitzaldia

Kapitalismoaren aurkako borroka moldeak Euskal Herrian hitzaldia izango da gaur 19:30ean Gaztetxean Ibarako Formakuntza eta Eraldaketarako Bilguneak antolatutako Apirila Gorria-ren baitan.

LEABURU ▶

Tutorearen bisita izango du bihar KZguneak

Leaburuko KZguneak bihar izango du tutorearen bisita. 16:00etatik 20:00etara izango da, hain zuzen ere, eta 18:00etatik 20:00etara Zure seme-alabak babestu mintegia izango da.

ELDUAIN ▶

Haurreskolaren matrikulaketa epea zabaltzeaz

Elduaingo haurreskolan matrikulaketa epea irekiko da maiatzaren 3tik 18ra bitartean. Haurreskolaren ordutegia, 07:30etik 18:30era izango bada ere, haur bakoitzak gehienez 8 ordu behar du bertan. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu haurreskolaren zenbakira 943 68 35 89 eta Loren edo Ixiarregatik galdetu edo bertara gerturatu, informazioa jaso eta eskola ezagutzeko.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko otorb. 47-behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: emio@inmoemio.com
www.inmoemio.com

Alegia. San Joan kalean 161 m2-ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza

ederrekin.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trastelekua eta garajearekin.

Berrobi. Pisu ederra 3 logela eta 2 balkoierekin. Dena kanpoaldera, eguzkitsua.

Donostia. Sagues auzoan etxebizitza salgai, igogailuarekin, eguzkitsua.

Ibarra. San Ignazio auzoan. Etxebizitza berokuntzarekin.

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ikaztegieta. 6 etxe abikiren eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Irura. Ibai aldera. 3 logela eta bi bainugela dituen etxebizitza salgai. Trasteleku eta garajearekin. Ezin hobeto.

Irura. Borda ikusgarria,

ikuszeko modukoa!

Tolosaldea. Eraikuntza berriko etxe bifamiliar zoragarria salgai. Terraza eta lorategiarekin. Ikusgarria!

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

Tolosa. Korreo kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela dituen etxebizitza salgai.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Berokuntzarekin. Sartzeko moduan. 168.285 euro.

Tolosa. Larramendi. Duela gutxiko eraikuntzan 2 logelako etxebizitza salgai berokuntza, igogailu eta trastelekuarekin. 222.375 euro.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Amaroz auzoan oso egoera onean dauden etxebizitzak eta berritzeko daudenak salgai.

Tolosa. Belate auzoan. 3 logela eta 2

bainugela dituen etxebizitza salgai.

Berritua.

Tolosa. Erdialdean. 130 m2-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai.

Ikuszeko modukoa!

Tolosa. Nafarroa etorbidean guztiz berritutako 3 logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntzan, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Agintari kalea. Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.

Trastelekua eta berokuntzarekin.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!

Tolosa. Batxiller Zaldibia kalean.

Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. 2 logela eta 2 bainugela. Egongela ikusgarria. Garajea aukeran. Ikuszekoa!

Tolosa. Iurre. 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Egoera bikainean.

Tolosa. Zumalakarregi ibiltokian, 101 eta 109 m2-ko bi etxebizitza bikainak. Estreinatzeko, erabat berritua izan ondoren. Kalitate oso onekoak dira.

Igogailu eta berokuntzarekin!

Tolosa. San Frantzisko ibiltokian. 46 m2-ko lokal komertziala dago salgai.

Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatua dagoen taberna salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Villabona. Larrea auzoan. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

LEITZA ▶ KIROLA

Plazako Eskuzko Binakako Txapelketa prestatzen ari dira

Aurten 13. aldiz jokatuko dute; pilotan aritzea gustuko izanik, 15 urtetik gorako edozeinek parte har dezake



Lehenengo urtean 15 bikotek parte hartu zuten. Finala —iruditan— uztan jokatu zuten. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Udaberrian sartuta egonik, uda aldeko eguraldi onaren itzaropenez, tenore honetan hasten dira plazan, aurten hamahirugarrenegoz jokatzeko den Eskuzko Pilota Txapelketa

prestatzen. Horrela bada, antolatzaileek izena emateko deialdia egin dute dagoeneko: 15 urtetik gora izanik betiere, bikoteek Plaza auto-eskolan eman behar dute izena, bikoteko 15na euro ordainduz, eta hilaren 30eko 20:00ak baino le-

hen; hau da, heldu den larunbat haxe da izena emateko azken eguna.

Plazako Eskuz Binakako Txapelketa honen ezaugarri bereizgarrienetakoa, Leitzako plaza ezagutzen duenak jakiten du, noski, ezker paretik ga-

beko pilotalekuan jokatzeko da, frontisak, aldeetara pareta tiki bana besterik ez baitu. Aparteko ezaugarri horrek berak jokoan eta arauetan ere eragin zuzena du.

Ezker paretik gabe

Horrela, esate baterako zabaleira eskuin aldetik ez ezik, ezkerretik ere joan daitekeenez, tantoak edo faltak kasuan kasu, hortxe erabakitzen dira; ondorioz, jokalariek tentuz ibili behar izaten dute, batez ere ezker paretaren babesean jokatzen ohituta egoten direlako gehienak eta zail egiten zaielako horrenik gabe jokatzeko.

22ra jokatzeko diren partidu hauetarako pilotak antolatzaileek eramaten dituzte. Pilota gozoak izaten dira, pilotariak esku hutsik aritzen dira-eta; hori ere beste ezaugarria izanik. Partiduak normalean larunbat arratsaldetan jokatzeko dituzte.

Plazako pilota txapelketa honetan parte hartzeko «deialdi zabala» egin dute, beraz, antolatzaileek. Bertako kide den Joxe Mari Azpirozek argitu zenez, «izena ematen duten bikote kopuruaren arabera, taldeak egiten dira». Orduan, «lehendabizi talde bakoitzean, horren barreneko bikoteek denek denek aurka jokatu, ligaxka egiten dute, irabazitako partidu bakoitzeko puntu bat eskuratuz», zioen. «Ondoren, taldeen artean, lehendabiziko lekuetan gelditutako bikoteekin, gurutzatuz, kanporaketako partiduak jokatzeko ditugu», erantsi zuten, «finalerdietarako bikoteak ateratzen dira saio horietatik, eta azkenean, finala jokatuko duten bikoteak», bukatuz.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Ginekologia kontsultaren eta sexu-heziketako zerbitzuaren eskaria

Etxarri Aranatzko Emakumeentzako Arreta Zentroko zerbitzua hobetzea eskatu dute

J. ASTIBIA

Altsasuko Feministak taldeak igorrita, Etxarri Aranatzko Emakumeentzako Arreta Zentroan zerbitzu gehiago eta hobeak jartzeko eskaria egin berri du Leitzako Udalak, besteak beste, ginekologia kontsultaren eta sexu heziketako zerbitzuaren inguruan.

Jakina da Nafarroako mendialdeko eskualdetik, ginekologia edota tokologia kontsultak hara bideratzen dituztela, eta sexu-heziketarako zentro bertakoena ere han dagoela. Hau dela eta, Leitzaldeko herri-tarrek Etxarri Aranatzera joan behar izaten dute, zerbitzu horien beharrea aurkitzen direnean. Bada, azken hilabeteetan

zentro horrek ez omen du behar bezalako zerbitzurik eskaintzen, «arreta eskaini beharreko kontsulta gehiegi izan eta bertako langileen ordutegi laburra dela-eta», mozioan salatu zuten.

Bertan adierazten zuten, bestalde, zentro hartan «dangilegoan egin berri duten berantolaketarekin, bertako profesionalen ordutegia are gehiago murriztu» dela, «ondorioz, ginekologia kontsultak sobera gainkargatuz». Horrela, esate baterako «errebisio ginekologikoak urtean behin egin beharrean, orain hiru urtetik hiru urtera egitea agintzen dute», zioten, «itxarote zerrenden ondorioz, benetan, lau urte bilakatzen direnak», zehaztuz jarraian; «emaginaren ordutegia

ere murriztu» egin omen dute; ginekologia zerbitzua ez omen dute egunero eskaintzen, eta opporraldian batera ez, «ordezkorik jartzen ez dutelako... Ez daude batera konforme, beraz, osasun aldetik begiraturata, gai horrek duen tratamenduarrekin.

Eta modu berean, aipatzen zuten, sexu-heziketari dagokionez ere ez. Salatu zuten, zerbitzu hau eskaintzen duten langileak «hasieran hezitzaileak baziren ere, gerora formazio bereziturik ez duen langilegoaz ordezkatu zituzten».

Aitatutako kontsulta eta zerbitzuak tajuz kudeatzeko eskakizuna dagokien osasun nahiz arduradun politikoei egin eta «herrira ekartzen saiatzeko» akordioa ere hartu zuten.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroazko dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona. Anbulat.: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxis: 67 04 20

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aurrerik aldikaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Iturrioz. Euskal Herria 3

(Ibarra). 943 670 915

Jimeno. Elbarren 52 (Leitza).

112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaidea. 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

